


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2020ko martxoaren 12an aurkeztuko du

William Kentridge: 7 atal

William Kentridge: 7 atal

- Datak: 2020ko martxoaren 12tik ekainaren 14ra
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2020ko martxoaren 12tik ekainaren 14ra, Guggenheim Bilbao Museok *William Kentridge: 7 atal* aurkeztuko du, 2020an Film & Video aretoan egingo den lehenengo erakusketa. Areto horretan, hainbat diziplinako funtsezko piezak jartzen dira: bideoartearekin erlazioatutakoak, ikus-entzunezko instalazioarekin erlazioatutakoak eta mugitzen ari den irudia arte-hizkuntza gisa darabiltenak.

Oraingoan, William Kentridgeren (Johannesburgo, 1955) ikus-entzunezko hiru obra egongo dira. Artista hori nazioartean ezaguna da, eta lau hamarkada baino gehiago daramatza sorkuntza zinematografikoaren eta bideografikoaren arloetan. Oro har, instalazioak bederatzi pantaila ditu; haien bidez, Kentridgek George Méliès zinematografia modernoaren jeinu sortzaile eta aitzindariari hel egiten dio; aldi berean, autorretratu oniriko bat egiten du, eta estudioa mikrokosmos gisa aurkezten. Instalazioa zuri-beltzean eginda dago, eta artistaren benetako irudiak eta *stop motion* teknika bereizgarriarekin egindako marrazkiak konbinatzen ditu. Kasu honetan, teknika horren bidez, ikatz-ziriz marrazteko ekintza filmatzen du, ondoren marrazkiak kamerari erakusten dizkio, zati batzuk ezabatzen ditu, eta haiek berriro marrazten, honela animazioaren azken irudiek aurreko bertsioetan ezabatutakoa ere erakusten dute.

7 atal Georges Mélièsentzat (7 Fragments for Georges Méliès, 2003) filmak ematen dio izena erakusketari, eta, han, artista lanean ageri da bere estudioan, edo bere marrazki bizidunetako batekin interakzioan. Horrela, obrak irudi oniriko betetako autorretratu bat osatzen du; bertan, estudioa agertoki kosmikoa da, eta agertoki horretan garatzen da artistaren eguneroko jardun etengabea.

Eguna gauaren orde (Day for Night, 2003) obrak, bestalde, filmen negatiboetan beltza zuri bihurtzeko Mélièsen egindako esperimenduetara darama. Irudietan ikusten denez, inurriek artistaren etxea inbaditu dute; azukre-lorraz bati jarraikiz, inurriak sakabanatu egiten dira, eta berriro biltzen, eta obraren ustekabeko laguntzaile bihurtzen dira. Obra negatiboan inprimatuta dago, eta izar-hodei baten efektua sortzen duten irudiak ditu.

Instalazioko hirugarren piezarekin, *Ilargirako bidaia (Journey to the Moon, 2003)*, omenaldi inplizitua egiten zaio Mélièsen 1902an egindako maisulan homonimoari, eta Philip Millerrek konposatutako soinu-banda originala du, zeinak areto osoa betetzen baitu. Filmean, Kentridge noraezean dabil estudioan, era guztietako ekintza sortzaileak imajinatuz. Artistak alderantzizko argazkilaritza erabiltzen du berriro, marrazki apaindutako zenbait orri haren eskuetara hegan joan daitezen, aztikeriaz, eta, aldi berean, esperientzia bisual eta oniriko bat sortzen du.

Instalazio honetan, William Kentridgek Georges Méliès zinemagile eta berritzaile handi frantsesari egiten dio omenaldia, baita efektu ilusionistak zituzten haren esperimentu burutsuei ere. XX. mendearen hasieran, zinema jaio berria zela, Méliès aitzindaria izan zen hainbat teknikatan (besteak beste, alderantzizko mugimendua, animazioa, etena eta iraungipena), eta, haien bidez, ordura arte inoiz ikusi ez ziren ikuskizun zinematografiko magikoak sortu zituen.

Erakusketa hau Guggenheim Bilbao Museoaren eta Fundació Sorigué fundazioaren arteko elkarlanaren emaitza da.

William Kentridge. Biografia

William Kentridge funtsezkoa da zinemaren eta bideoinstalazioaren azken urteotako historian. Johannesburgon (Hegoafrika) jaio zen 1955ean, eta herrialde hori haren pieza ikonikoetako askoren erreferentzia geografiko, politiko eta sozial gisa erabili zuen. Bertan ditu bizilekua eta estudioa. *Apartheid* aren kontrako bi abokaturen semea izaki, gaztaroan kausaren aktibista izan zen, eta gaur egun ere *apartheid*-ak iraun bitartean eta haren ondoren Hegoafrikan bizitzeak eragindako erronka islatzen duen sorkuntza artistikoarekin konprometituta jarraitzen du. Giza existentzia interesatzen zaio, bere dimentsio praktiko eta etiko osoan, eta artea sentsibilitate politikoarekin bizitzeko modu gisa hartzen du. Haren lana pertsonala eta unibertsala da aldi berean, eta gure garaiko oinarrizko alderdi filosofikoz beteta dago.

Kentridge animazioko film labur bereizgarriengatik da ezaguna nazioartean. Film horiek hizkuntza estetiko desberdinen elkargunean kokatzen dira; hots, marrazketa, zinema, koreografia, eskuz egindako animazioa edo eszenografia. Gehienetan erabiltzen duen zuri-beltzari esker, haren lanak filmaren testura hainbat bitarteko plastikoekin lotzen du (ikatz-ziria, grafitoa, tinta, etab.) eta horiekin lanean dabilenak baliatzen dituen ezabatzeko tresnekin (trapua, borragoma edo ura); honela, keinu grafikoaren eta hura ezabatzearen arteko binomio emozionala aztertzen du. Haren ekoizpen zabal eta askotarikoak garbi uzten du zeinen garrantzitsua den harentzat sortze-prozesua.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, artistak mundu osoko museo eta erakunde garrantzitsuenetan jarri du ikusgai bere lana, baita opera, kontzertu-areto eta espazio publiko aipagarrietan ere. Ospe handiko sariak bereganatu ditu; esaterako, Kyoto Premium (Japonia) 2010ean; Dan David Prize delakoa (Israel) 2012an; eta Asturiasko Printzesaren saria 2017an. Arte eta Letren AEBko Akademiako kidea da, eta *honoris causa* doktore izendatu dute Yaleko (AEB) eta Lurmutur Hiriko (Hegoafrika) unibertsitateek.

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazio bat da, eta, bertan, Guggenheim museoetako nahiz nazioarteko beste erakunde batzuetako obrak biltzen dira. 2016an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak artista berezi ugariaren sorkuntza-lanak izan ditu ikusgai; besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, Jesper Just eta Jesse

Jones. Areto honek zinemaren eta bideoinstalazioaren historiako funtsezko artista honekin emango dio hasiera 2020ko programazioari.

Azaleko irudia

Ilargirako bidaia (Journey to the Moon), 2003

Bideoa, zuri-beltza, soinuduna. 7' 10''

Fundació Sorigué fundazioaren bilduma, Lleida

© William Kentridge, 2003

Eskaintza: Lia Rumma Gallery Milan/Napoles

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
William Kentridge: 7 atal
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

William Kentridge

7 atal Georges Mélièsentzat (7 Fragments for Georges Méliès), 2003
eta *Eguna gauaren ordeztan (Day for Night)*, 2003


Instalazioa, 8 kanal, HD bideoa. Zuri-beltza, soinurik gabea.

Fundació Sorigué fundazioaren bilduma, Lleida

© William Kentridge, 2003

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Sergio Verde



William Kentridge

Ilargirako bidaia (Journey to the Moon), 2003

Bideoa, zuri-beltza, soinuduna. 7' 10''

Fundació Sorigué fundazioaren bilduma, Lleida

© William Kentridge, 2003

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Sergio Verde



William Kentridge

7 atal Georges Mélièsentzat (7 Fragments for Georges Méliès), 2003
eta *Eguna gauaren ordeztan (Day for Night)*, 2003

Instalazioa, 8 kanal, HD bideoa. Zuri-beltza, soinurik gabea.

Fundació Sorigué fundazioaren bilduma, Lleida

© William Kentridge, 2003

Instalazioaren bista: Guggenheim Bilbao Museoa, 2020

Argazkia: Sergio Verde

